



EGUNKARIA

Tatuajeak, moda bat ez ezik, aspaldiko kontua dira. Ezkerrean, duela 100 bat urteko tatuajea; eskuinean, goitik beheiti tatuatutako emakume bat.



ADITUEN IRITZIAK

«Erreakzioa izatekotan, onena eragilea kentzea»

Tatuajeek eta *piercing*-ek azalean eragindako kalterik behinenak zeintzuk diren jakitearren, bi dermatologorenagana jo dugu. Javier Bikandiren idurikoz, «gorputz arrotz bat dira gure gorputzean, eta errefusa egon daiteke edo ez. Errefusa egonez gero, erreakzio bat gertatuko da. Tatuajea zailagoa da kentzeko, baina erreakzioa izatekotan hoberena kentzea da, baita *piercing*-a ere. Ezin da aurretik jakin alergía sortuko den, baliteke organismoak berehala edo urteak pasatu ostean erreakzionatzea». Bikandi ez da tatuaje eta *piercing*-en zalea, eta bezeroei gorputzean «objektu arrotzik ez sartzeko» gomendatzen die. Bestalde, *piercing*-en kasuan, adituek diotenez, metalezko uztai edo ziriek nikela badute, infekzioa sortzen da eskuarki, eta metala kendu ezean, ez da infekzioa sendatuko, eta zornatzen segituko du. Erreakzioetan ohikoena hori bada ere, kasu larriagoak ere gertatu izan dira, nahiz eta hain arruntak ez izan; hala, *piercing*-ak herpesa sortu eta gaixoak ospitale-ratu behar izan dituzte.

AHOLKUAK

Garbiketa eta desinfekzioa

Tatuaje edo *piercing* bat egiteko asmotan bazabiltza, prozesuaren garbitasuna eta higie-ne neurriak ezinbestekoak dira. Honatx kontuan hartu beharreko oinarriko aholkuak:

PROFESIONALAREN HIGIENA.

Profesionalak eskularru higieniko batzuk jantz ditzan eskatu. Ez dezala erre.

TRESNERIA DESINFEMATUA.

Erabiliko duten tresneria (pistola eta abar) desinfektatuta dagoen galdetu. Hala-ber, orratzak, tintak, ontzitzoak, eskularruak... berriak izateko eskatu. Horiek guztiak behin bakarrik erabiltzekoak dira, eta jarraian zaka-rrerara botatzekoak.

AZALAREN GARBIKETA.

Tatuajea edo *piercing*-a egingo ditzuten gorputz atala garbitu eta desinfektatu behar dizu profesionalak. Batzuetan azal zati horretako ileak moztu beharko ditu; bizar xafila berri batekin egin dezala.

ONDORENGO TRATAMENDUA.

Behin tatuajea edo *piercing*-a eginda, profesionalak azala garbitu beharko dizu. Orobat, tatuajea eta metala gorputzean erabat finkatu arte zer higie-ne neurri eta tratamendu (pomadak, garbiketa...) behar diren galdetu. Arazorik sortuko balitz, mediku batengana jo.

Gorputza zulatu eta pintatzearen ajeak

TATUAJE ETA 'PIERCING'-EN ONDORIOAK. Geroz eta hedatuago dauden ohiturek gure azalean hamaika arazo sor ditzakete

Juanma Sarasola | DONOSTIA

Munduan barrena usadio berria ez den arren, azken urteotan geroz eta tatuaje eta *piercing* gehiago egiten ari dira Euskal Herrian; berauek egiteko geroz eta artista gehiago daude gainera. Uda parte izaten da tatuajeak eta urtean arropak ezkutatu-tako *piercing*-ak erakusteko sa-soirik onena, eta, xede hori gogoan, jende askok bere gorputza apaindu nahi izaten du.

Tatuatzea eta *piercing* bat egitea gure haragian gorputz arrotz bat sartzea da, azken batean. Eta, horrexegatik, gure gorputzak tinta edo objektu arrotz hori onartu ala errefusa dezake. Alergia da gerta daitekeen errefusa mota bat.

SEAIC Espainiako Alergologia eta Inmunologia Klinikoa-ren Elkartearen aldizkariak dakarrenez, tatuajeek alergía kasu ugari eragiten dituzte; tatuajeak egiteko zein kentzeko teknikak eta baldintza higienikoak geroz eta hobeagoak dira, hala ere. Aldizkariak dio tatuajeak egitean ez direla substantzia toxikoak, narritagariak eta zurgatzai-leak erabili behar. Hala ere, erreakzioak gerta daitezke.

Tatuajeetan kolore gorria da erreakzio alergiko gehien sortzen duen eragilea, burdina oxidoak eta sandalo egurreko pigmentu organikoak eta laka gorria baititu bere osagaien artean. Pigmento horiek dermisean sartzean gorputz arrotz gisa jokatzeko dute eta granuloma progresiboak sor ditzakete, tatuajearen inguruan pixkanaka eraginez. Granuloma bat batez ere tinta gorriekin sortzen den azalaren erreakzio bat da; gure babesek pigmentoa jan nahi izaten dute eta haren inguruan pilatzen dira, pikor moduko bat osatuz.

Kolore beltzaren kasuan ere, tinta beltzak dermatitis alergikoa eragin izan du zenbaitetan, baina ez dute oraindik agente eragilea identifikatu.

Erreakzio mota franko

Hennarekin egindako tatuajeetan ere agitu izan da erreakziorik. Tinte bejetala da henna, eta eragin alergeniko urria duen arren, rinitis edo asma bronkiala eta kontaktuko dermatitis alergikoa (DAC) eragin izan du batzuetan. Henna azalari itsatsita geratzeko denbora murriztearren, parafenilindiamina (PPDA) kolorante kimikoa ba-



BELARRI KALTETUAK

Belarriaren goi aldeko kartilagoan egindako 'piercing' edo zulaketek perikondritisa eragiten dute kasu askotan

TINTEN ERREAKZIOAK

Tatuajeetan kolore gorriak sortzen du erreakzio alergiko gehien, batik bat burdina oxidoengatik

liatzeak erreakzio alergikoak ere eragin izan ditu.

*Piercing*-ari dagokionez, bestalde, *British Medical Journal*-eko artikulu batek dio belarriaren goi aldeko kartilagoan egiten diren zulaketek perikondritisa eragiten dutela askotan, eta infekzioaz gain, belarriaren deformazioa eragin dezaketela, *azalore belarria* deitua sortuz.

Donostiako Tattoo Felixeko tatuajegileak esan digunez, azken urteotan higie-ne neurriak «asko zorroztu dira», batez ere tatuajegileek beraiek hala erabakita. Felixen ahotan, higie-ne

eta osasuna bermatzeko «erabili eta botatzeko materiala erabiltzen dugu: latexeko eskularruak lehenik, eta aldian aldiko orratz, ontzitzo eta tinta berriak». Gisa berean, tatuajea egiteko pistolaren pieza guztiak esterilizatzen dituztela esan du: «Autoklave metodoa baliatzen dugu, ospitaletan bezalatsu: piezak esterilizatzeko konpresioa, ura irakiten eta lurrina erabiltzen ditugu horretarako».

Araudirik ez dago oraindik

Espainiako Osasun eta Kontsumo Ministerioa lege aurreproiektu bat prestatzen ari da *piercing* eta tatuajegintza higie-ne eta osasun aldetik arautu eta kontrolatzeko. Profesionalen kreditazioa eta erabiltzen dituzten teknika eta materialak nahiz eragindako infekzioak kontrolatzea da aurreproiektuaren xedea. Berau laster aztertzea da, eta komunitate autonomoen ekarpenak erantsa espero dute.

Dena den, ekinbide hori ez dago oraino gurean araututa. Ipar Euskal Herrian tatuatzaileak azal gainean lan egiten duten artista gisa daude izendatuta; Hego Euskal Herrian, aldiz, artista libre gisa.